

Kultura ekoizpena Coworking



Harrobia Plaza, 5
2. solairua



(María) 657798435



redintercambio@wikitoki.org



www.wikitoki.org
@wiki_toki



AZALPENA

NORTZUK GARA elkarsorkuntzarako laborategi bat, pertsona eta elkarte txikik osatzen dugun talde irekiak autogestionatua, eta Bilbo Zaharrean espazio bat partekatzen dugu.

GURE LANA harreman, antolaketa, ikerketa, sorkuntza, ekoizpen edo kontsumo mota berrien gainean esperimentatzen dugu, arlo hauetan egiten ditugun proiektuen bidez: esku-hartze kulturala, gizarte berrikuntza, garapen komunitarioa, ekonomia solidarioa edo teknologia irekiak.

ESPAZIOA erabilera anitzeko gela, 350 m2 ingurukoa eta 50 lagun baino gehiago hartzen dituen, zenbait bilera-gela itxi eta lanerako espazio pribatu bat.

AUZOAN GAUDE 2013tik.

HAUEKIN ARITU GARA ELKARLANEAN Sarean // MEM // Gau Irekia // Recrea2.

SAREARI ESKAINTZEN DIOGU

ESPAZIOA: Erabilera anitzeko gela eta bilera-gelaren bat.

JARDUERA MOTA: Tailer teorikoak, performanceak, aurkezpenak, proiektzioak, asanbladak, talde handi zein txikiren batzarrak.

TRESNAK/BALIABIDEAK: Altzariak (aulkiak eta mahaiak), ikus-entzunezko baliabideak (proiektorea eta pantaila), wifia, zabalkunderako kanalak.

GONBIDATZAILEAREN LAGUNTZA: Espazioa zabaltzeko eta ixteko. Jarduera zabaltzeko, publikoa balitz.

ERABILTZEKO AUKERA (¿Noiz?): Gela handia, astelehenetik ostiralera 19:00etatik aurrera. Bilera-gelak, libre baldin badaude. Bestelako aukerak, kasuan-kasuan adostuko dira.

AUZOARENGANDIK BEHAR DUGU

ESPAZIOA: Ekoizpenerako tailerrak (erremintak barne), entsegu eta performancetarako espazioak, prestakuntza homologaturako gelak.

JARDUERA MOTA: Autoeraikuntzarako eta sorkuntzarako tailerrak, gorputz edo lan eszenikorako lan-saioak, prestakuntza teoriko-praktikoa.

TRESNAK/BALIABIDEAK: Jarduera horiek aurrera eramateko behar diren guztiak, erremintak, arte eszenikoetarako ekipamenduak (audioa, koltxonetak...).

GONBIDATZAILEAREN LAGUNTZA: Espazioa zabaltzeko eta ixteko, eta jarduera zabaltzeko.

ERABILTZEKO AUKERA (¿Noiz?): Noizean behin.

